



HAL
open science

Lexikoaren hedapena goi-nafarrerako hir ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue.

Orreaga Ibarra Murillo

► **To cite this version:**

Orreaga Ibarra Murillo. Lexikoaren hedapena goi-nafarrerako hir ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue.: ERROIBAR, ESTERIBAR, ANUE. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 2003, 39 (39-1), pp.22. artxibo-00077054

HAL Id: artxibo-00077054

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00077054>

Submitted on 29 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Lexikoaren hedapena goi-nafarreraren hiru ibarrotan: Erroibar, Esteribar eta Anue.

2005, in Larry Trask-i omenaldia ASJU XXXIX-1, 243-255.

ORREAGA IBARRA MURILLO
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

0. Atariko

Lan honetako gure xedea da Nafarroako hiru ibarrotako lexiko zenbait parekatzea, banaketa geolexikoaz zerbait argitzeko helburuz. Era berean argitu nahi dugu Bonapartek proposatutako banaketa dialektala -GN hegoaldekoa/ iparraldekoa- ea bat datorren banaketa geolexikoarekin

Aukeratutako ibarrak hauexek dira: Erroibar, Esteribar eta Anue eta hartutako lanabes bakarra izan da A. M. Etxaideren lana "El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas 1965-67" Liburu honen inkestak duela ia 40 urte egin ziren, eta honenbestez nolabaiteko balioa dute, euskara galdu baita horietako hainbat herri eta ibarrotan. Bestaldetik, galdetegia zehatza da eta hori dela eta, erantzunak sistematikoak. Horrela, lan honetan galdetegi baten hobaria, hain zuzen ere galdetegiaren erantzunak parekatu ahal izatearena, aprobetxatu nahi izan dugu.

Erabiliko dugun esparrua izanen da Erroibarko bi herri (Aintzioa eta Ardaitz), Esteribarko beste hauek (Eugi, Iragi, Leranotz eta Inbuluzketa) eta Anueko bi (Etulain, Arizu) herriei dagozkien erantzunak. Lana erraztearren herriak ibarka kokatu ditugu, ez dugu -erabat beharrezkoa ez bada- herrien arteko diferentziarik aipatuko.

Hiru ibar hauek ekialdetik mendebaldera lerratzen dira eta hain zuzen ere, hortxe (Anueren hasieran) ezarri zuen muga Bonapartek goi-nafarrera iparraldekoa eta hegoaldekoa bereizteko.

Ehun urte igaro ondoren, euskal dialektologian urrats nabarmenak ematen ari da eta lan horien guztien ondorioz, Zuazok sailkapen berria proposatu du (1998) eta eremu hau guztia "nafarrera" barruan sailkatu du. Caminok berriki (1999: 16, 21) Goñibarko euskara aztertzean, proposatu du horrelako banaketa berria goi-nafarrerako.

Hon laburbildurik:

- Erdialdeko hego-nafarrera, bertan Artzibar, Erroibar, Esteribar eta Eguesibar sartzen ditu.

- Hegoaldeko hego-nafarrera: Itzarbeibarko euskara sartzen du.
- Mendebaldeko hego-nafarrera: Goñerri, Gesalatz eta Oltzako hizkera.

Begien bistakoa da ageri diren hitz guztiek ez dutela geografia hedadura bera, baina jakin nahi dugu ia jauzi nabarmenik dagoen lexikoaren erabileran Esteribarretik Anuera bitartean.

Lan honetan bertan Caminok Esteribar eta Anue eremu berean sartzen ditu “erdialdeko goi-nafarrera” osatuko lukete, baina, egia esan ez dakigu oso ongi Esteribartik ezker zer dagoen, alegia Anue eta Ultzama aldera. Gainera, mapa marrazterakoan, Anue erdialdeko eremuan sartzen du, baina margotu gabe zehazki zer dagoen.

Geografikoki mugakideak diren hiru ibar dira hauek, ekialdetik mendebaldera hedatzen direnak, bat bestetik elkarren ondoan, *continuum* geografikoa irudikatzen dute, eta oso egokiak dira gure xedea frogatzeko, alegia, eremu lektalaren *continua* aztertzeko, edota ia nolabaiteko eten lektala dagoen ondorioztatzeko.

Izan ere Caminok maisuki dioenez:

“Dialektoak gauza bat dira, eta eremu lektal edo continua lektalak beste bat: hizkeren argazkiaren ikuspegi desberdinak ateratzea edo irudiari beste leku batetik begiratzea bezala litzateke” (Camino 1999: 11)

Guk jakin nahi izan dugu zein ondorio ematen zuen hiru haran hauetako lexikoa parekatzea, nolabaiteko muga ote dagoen argitu ahal izateko. Izan ere, gauza jakina da euskarak fragmentazio lexikoa handia erakusten duela, Videgain ere (1987: 147) lexikoa jorrazterakoan ondorio berera heltzen da. Oztopoak ez dira gutxi. Caminoren lan hauetan goinafarreraren mugak zertxobait aldatzen ari direla iruditzen zaio, eta berarrek dioenez, muga antzeko zerbait bada Goñiko euskaratik Elkanokora, geolinguistikoki eta kualitatiboki garrantzia duena. Elkano bere ekialdera dauden hizkera batzuekin lotzen da: Erroibarrekin eta Aezkoarekin gehienetan. Goñibarko hizkera, ordea, mendebalderagokoekin lotzen da (Camino 1999: 18).

Lan honetan soilik lexikoiko itemak dira galdezkatzen direnak eta hori izanen da aztergai izanen dena. Emandako 300 inguruko erantzunetatik, guk aukeratu ditugu desberdintasuna suposatzen zutenak, bereziki lexema ezberdina edota aldaera ezberdina aukeratzea ekartzen zutenak, nahiz kasu batzuetan aldaketa fonetikoa besterik ez zen, eta baztertu ditugu inolako aldaketarik suposatzen zutenak.

Onartzen dugu galdetegi batean oinarrituz etor daitezkeen arazoak, izan ere, galdetegiaren arriskua da galdera bakar bat hitzun bakoitzari egiten zaiola, eta horretan, jakina, polimorfismoa ekiditen da, ez dugu modurik polimorfismoa ikusteko. Hauxe bera da dialektologia tradizionalari egozten zaion aitzakia, hitzun bakoitzari erantzun bakar bat egokitzea. Baina hori ez da desabantaila bakarra, galdetegiaren erantzunak gehienetan oso formalak izaten dira:

“Por el contrario, el uso de preguntas concretas, aunque sea indirectas, encaminadas a obtener unas respuestas concretas, mantiene un nivel de formalidad mayor. Muchas de las preguntas presentan el aspecto de una especie de intercambio entre un maestro y un discípulo, y un intercambio no especialmente agradable, cuando la respuesta resulta trivial u obvia”
(Chambers & Trudgill 1994: 50)

Bestalde, galdetegi batean ezaugarri bat ez agertzea ezaugarri hori existitzen ez dela baieztatzera eraman gaitzake kontuan hartu gabe, momentuaren eta hitzunaren arabera, hitzunak forma gehiago ezagutu ditzakeela etab.

Era berean, ez da ahaztu behar hizkeren edo herrien arteko desberdintasunak ezin direla besterik gabe kontatu, desberdintasun horiek ponderatu behar direla, batzuk garrantzitsuagoak direlako besteak baino.

Aurrekoetxeak egindako azterketa dialektometrikoa ere kontuan izanen dugu, galdetegi honetantxe oinarritzen baita. Aurrekoetxeak dioskunez (1992: 102) 10. mapan Aintzioak, Inbuluzketak eta Leranotzek antzekotasun handia dute haien artean, alegia Erroibar eta Esteribarko herrien artean. Bestaldetik, Esteribar eta Anueko herriak daude, Eugik, Iragik eta Arizuk dute similaritate handia haien artean.

Horrela dio (1992: 77) Aurrekoetxeak:

“Erroko azpieuskalkia barietate bik ordezkutzen dute: Erroibar eta Esteribarrekoak, hain zuzen ere. Lehen barietatean herri bat baino ez dago gure puntuaren artean: Aintzioa (12). Esteribar lau herrik ordezkutzen dute: Eugi, Iragi, Leranoz eta Inbuluzketa. Azken hau hartu da prototipo moduan.

Leranoz eta Aintzioa ez ditu hurbilen, bai ordea Eugi eta Iragi. Eta hauekin iparraldeko nafarrera garaiko Ultzamako azpieuskalkikoak diren Arizu Anuen; Arraitz eta Auza Ultzaman: eta Arostegi eta Berasain Atezen”

Esaten duenean oinarrituz eremu makrodialektalak ikus ditzakegu, eta honetan bistan denez, Erroibarko hizkera Esteribar eta Anuekoarekin lotuta agertzen da, eta horretan ere ados gaude. Ideia beretsua du Zuazok (1998) euskalkien banaketa egin zuenean, nafarrera euskalkia hori guztia hartzen zuela baieztatzerakoan.

Azken honetan Caminok burututako lan zehatzean (Camino 1999, 2000), goi-nafarreraren irudikapen berria dakarkigu (1999: 16, 21), lan honetan dialektometriaren beharra aipatzen du, baina horretarako datu-oinarri bat behar da ezinbestean, eta begien bistakoak diren arrazoiengatik hori orain ezina dela ere dio.

1. Datuen zerrenda

Honatz datuak, ezkerreko zenbakiak liburuan (Etxaide 1989) duen berbera da, errazago aurki dadin. (Erro laburtzapena erabili dugu Erroibar osorako, eta (Ester) Esteribarrerako:

4. Hierro: burrina, birrune, burdine¹ (Erro) / burdine/a, burnie (Ester) / burnie (Anue)
6. Rayo, relámpago: tximista (Erro)/ aire gaixtoa, oñazture (Ester) / tximiste (Anue)
8. Lluvia: euria (Erro)/ eurie (Ester) / egurie (Anue)
9. Granizo: txetxorra (Erro) / txitxorra, kazkarabarra (Ester) / kazkarabarra (Anue)
10. Rocío: izotza, intze (Erro)/ intza,e (Ester) / intze (Anue)
11. Escarcha: izotza (Erro)/ izotza (Ester) / izotza, orma (Anue)
12. Hielo: izotza (Erro)/ orma, izotza (Ester) / izoztuik, ormatue (Anue)
15. Luna: ilergie, illargia (Erro)/ ilergie (Ester)/ illargie, iyargie (Anue)
26. Viernes: ortzilaria (Erro)/ ortzirelia (Ester) / ortzilleria, ortzileria (Anue)
21. Reloj: erlojua, relojia (Erro)/ montra, errelojue (Ester) / errelojue (Ester)
29. Enero: izotzilla (Ai) / ilbeltza (Eu) / ootzille (Anue)
30. Febrero: otsalla (Erro) / zotzille (Anue)
31. Marzo: martxoa (Erro) / epalla (Ester)/ martxoa (Anue)
32. Abril: aprilla (Erro) / loralla (Eu) / aprile (Anue)
34. Junio: garagartzarua (Erro) / garagarrilla (Eu) / gaarsarue (Anue)
35. Julio: garilla (Ai) / uzta (Ester)/ julioa (Anue)
36. Agosto: agostia (Ai) / dagonilla (Eu) / agostue (Anue)
37. Septiembre: urria (Erro) / agorra (Ester) / urrie (Anue)
38. Octubre: lastalla (Erro) / Ester (ns/nc)/ otubria (Anue)/
39. Noviembre: azarua (Erro) / nobienbria, azarue (Anue)
40. Diciembre: abendue (Erro) / diziembria, abendue (Anue)
41. Primavera: (Erro)² (ns/nc) / primabera, primedera (Ester) / primabera (Anue)
43. Otoño. Larrazkena, otoñoa (Erro)³ / larrazkena (Ester) / otoñoa denbora (Anue)
47. Carnaval. iyautiak (Eu), irautriak, irautiak (Ester) / iyaute, iyotiak (Anue)

¹ Hau ez da agertzen den aldaera, baina, guk Erroibarren *burdine* erraten dela badakigu.

² Nahiz eta (ns/nc) ekarri, guk badakigu *primedera* dela Erroibarren.

³ 43. galderan ez du hori ekartzen, *otoñoa* esaten du, baina hau Aintzioan galdetu zelako da, baina guk badakigu Erroibarren *larrazken* esaten dela.

48. Nochebuena: gabona (Erro) / subilero (Eu), eguarriko arratsa (Eu) / sunbillero, eguarriko bespera (Anue)
50. Día de fiesta: festa (Erro), besta (Ester)/ jai eune, jaya (Inb)/ besta, yai (Anue)
53. El amanecer: argiestean (Erro)/ argiastia (Ester) / argistian, argitzean (Anue)
54. El anochecer: ilunian, ilunabarrean (Erro) / ilunian (Ester)/ illuntzian (Anue)
56. Ortiga: asuñe, asuñek (Erro, Ester) / ausiñe (Anue)
59. Lino: ligue (Erro)⁴/ ligue (Ester) / linoa (Anue)
61. Viña, uva: matsa (Erro) / ardantzea (Ester) / matsa (Anue)
65. Zarza: larra (Erro) / sasié, larra (Ester) / sasiék, larrak (Anue)
66. Zarzamora: martosa (Erro) / martuse (Ester) / martuxe (Anue)
67. Fresa: ns/nc (Erro)⁵/ malubie (Ester) / marurie, malubie (Anue)
- 68.⁶ Bellota: babatsa (Erro) / ezkurra (Ester) / ezkurre (Anue)
69. Nuez: txagurra, txaurre (Erro) / eltzaurre, giltzaurre (Ester) eltzaurre (Anue)
71. Prado: saroya, pentzia (Erro) / pentzea, sóloa (Ester) / soro bat (Anue)
72. Sembrado: alorra (Erro)/ alorra erekie (Ester) / alor bat ereiteko (Anue)
61. Viña, uva: matsa (Erro / matsa (Eu) / ardantzea (Ester) / matsa (Anue)
81. Araña: arbimagua, arbinboa (Ester)/ armimaua (Anue)
83. Ardilla: burtxintxe, gatapurtxintxe (Ester) / urritxintxe (Anue)
90. Cabrito: antzumia, antzumia (Erro, Ester) / aunskumia (Anue), aunsumea (Arizu)
91. Cuerpo: korputze (Erro) / gorputza (Ester) / gorputza (Anue)
99. Quijada: kokotxa (Erro)⁷ / matelasurre (Ester)(ns/nc) (Anue)
105. Lomo, riñones: gerruntzia (Erro),(Ester) / erraye, saiets (Anue)
108. Pelo: biloa, bilua (Erro, Ester) / illa (Anue)
- 109: Lana: illea, ellea (Erro) / biloa, ella (Ester)/ illa (Anue)
11. Dedo: edea, eddie (Erro) / éria, érie (Ester) / beátza, biatza (Anue)
121. Huevos: arrautzea, arrotzia (Erro) / arrotziak, arraultzea (Anue)
137. Bostezar: arrausia (Erro) / arrausie(Ester) / agua erekitzen, agua zabaldu (Anue)
143. Cuchillo: kanibeta (Erro) / kanabite (Ester) / nabala (Anue)
145. Caldero: bezkoa (Erro) / bezkoa, pozala (Ester) / pozala (Anue)
- 148: Tijeras: kurixa (Erro) / kurixak, purixek (Ester) / piruxek (Anue)
149. Criba, tamiz: baya, krike (Erro) / pasadera, aozbaya (Ester) / pasadera (Anue)
151. Escaño: eskalue (Erro) / eskañue, zizeilluak (Ester) / respaldue, izillue (Anue)
- 152 Tizón: ikatza (Erro) / sutillekia, egurre (Ester) / iketza (Anue) ‘tizón’
153. Hollín: kedarra (Erro) / kedarria (Ester) / kedarrea (Anue) ‘hollín’
155. Lejía: lixua (Erro) / lixue (Ester) / lixue (Anue)
156. Nudo: korropillua (Erro) / korropilloa, koropilloa (Ester)/ koropilloa (Anue)
159. Sábana: maindrea (Erro) / larrie, maindria (Ester) / mainderia (Anue)
163. Anverso de la mano: eskupean (Erro)/ pekua (Ester)/ esku azpie (Anue).

⁴ Liburuan ns/ nc agertzen da, baina guk Erroibarren *ligue* bildu dugu.

⁵ *Ns/nc* agertzen da baina Erroibarren *maruri* esaten da.

⁶ Banaketa horrelakoa bada ere, ez du baliagarritasun handirik zeren Erroko erantzuna , alegia, *babatsa* “hayuco”-ari egien dio erreferentzia, eta ez “bellota”-ri.

⁷ Hemendik ezin da deus ondorioztatu kokotxak ‘barbilla’ adierazi nahi duelako Erroan.

165. Ángel: angiru, anjel (Erro) / aingiru (Ester) / aingeru (Anue)
 168. Santo: sandua (Erro)/ sandue(Ester)/ santue (Anue)
 171. Perdón: barkamendua (Erro) / barkaziua (Ester) / barkazioa (Anue)
 174. Abuelo: apitxi (Erro)/ aputxi, abuelo (Ester), aitegutxi, aiteutxi (Ester)/ abuelo, aitutxi, aiteutxi, aitutxi (Anue)
 175. Abuela: amitxi (Erro) / amutxi, amitxi, abuela (Ester) / abuela, amutxi (Anue)
 188. Mujer: mazte, andre (Erro) / mazteki, andre (Ester) / andre, makume (Anue)
 190. Pastor: artzea, artzaya (Erro) / artzaya (Ester) / artzaya, artzaye (Anue)
 191. Niñera: aurtzai, aurtzegie (Erro) / aurtzaya (Ester, Anue)
 206. Desnudo: buluxi (Erro) / buluxi, ator utsean (Ester) / biluxik (Anue)
 207. Descalzo: urtuxi (Erro) / urtuxik, oñetako kabe (Ester) / oñutsik (Anue)
 211. Francés: frantsa (Erro) / frantsa, frantsesa (Anue) / franzesa (Anue)
 212. Hablar: mintzatu, yarduki (Erro) / mintzatu, yarduki (Ester) / itziteut (Anue)
 214. Detrás: gibeletik (Erro, Ester) gibeletik (Anue)
 218. Estoy peor: makurrago (Erro) / makurrago (Ester) / gaizkiago (Anue)
 202. Holgazán: perezosoa (Erro) / alferra, kostagirotu, kostalarie, auferra (Ester)/ Alferra (Anue)
 221. De dentro: barreneko (Erro) / barreneko, barneko (Ester) / barneko (Anue)
 222. Morder: ozka (Erro) / ozkin (Ester) / ozka (Anue)
 225. Subir: iyen (Erro) / iyen, goratu (Ester) / iyen (Anue)
 237. Se ha despertado: iretzarri (Erro) / itzarri, itzerri (Ester) / itzerri, tzerri (Anue)
 240. Desvestir: buluxi (Erro) / buluxi, buruxi (Ester) / biluxi (Anue)
 260. Enviar: igorri (Erro)/ bieli, igorri (Ester) / bieli (Anue)
 262. Nadie: niok (Erro) / niorek, iñok, iok (Ester) / iñork (Anue)
 287. Cien: eun (Erro) / eun (Ester) / egun (Anue)
 288. Mil: mille (Erro)/ mile (Ester) / mille (Anue)
 290. Segundo: bigarrena, bigarrena (Erro, Ester) / bigarna (Anue)
 292. Cada uno: bakarrendako (Erro)/ bakarrendako/ bakarrendako (Ester) / bakotxandako & bakarrendako (Anue)

2. Hainbat item lexikoren azterketa

Atal honetan aipaturako itemak aztertzeari ekingo diogu:

Burdina aldaera –4. galderakoa– Aezkoan, Erroibarren, Luzaiden eta Auritzen erabiltzen da. Era berean, *burdina/burdine* aldaerak agertuko dira Baztanen eta Urdazubin eta Zugarramurdin. Esteribarren txandaketa hasten da: *burrina* eta *burdina* baititugu, eta azkenean, Anuen *burnie* dugu.

8. galderan, *eguri* forma, -g-duna, hedatzen da Anuen eta Ultzaman. Ezin dugu esan hemengo eskusiboa denik, Basaburuko Itxason, eta anitz ere ekialderago dagoen Orotz Betelun ere agertzen da.

Galdeketa hartzen badugu, 9. galderan *txetxorra / kazkarabarra* banatzen duen muga Anuetik mendebaldera hedatzen da -Ultzamara eta Basaburura-, nahiz Esteribarren bi formak nagusitzen diren. Ekialdeko ibar guztiek *txitxorra* erabiltzen dute, Baztanen salbu, hor *zizerkora* agertzen da bi herritan.

15. galderan *ilargiarena* dugu. Lexema aldaketarik ez dago, baina Anuen hasten dira aldaki palatalizatuak hedatzen, *illargie* eta *iyargie*, bigarren honek *yeismoa* erakusten badu ere. Erroibarren txandaketa dago, baina gehienetan palatalizatu gabeko aldaerak dira gailen. Banaketa berbera ikusten da *mil* hitzean 288 zenbakia duena. Honetan ere Anuen hedatzen dira forma palatalak, Esteribarren palatalizatugabeak eta Erron *mille* agertzen da, nahiz guk frogatu dugun *mile* forma nagusitzen dela.

35. galdera, *julio*-ri dagokiona da. Ikusten dugu mendebaldeko aldaera bat agertzen dela gure herrietan, kontuan hartzen badugu banaketa hau *uzta* (mend.), Gipuzkoan hedatzen dena, *garila* (ek) Bonapartek Elkanon, Oltzan eta Goñin testigatzen du eta baita zaraitzueraz eta aezkeraz ere (Ik. Echaide 1999: 353). *Uzta* lexema, erdialderago nagusitzen dena, Esteribarren agertzen da, Eugin eta Baztanen. Eta Ultzaman eta Imotzen, bestaldetik, ekialdekoa den *garille* forma agertzen da oraindik. Honek adierazten du aldaketa pixkanaka egiten dela, batzuetan item hauek Esteribarren dute hasiera, hortik mendebaldera hedatuz, besteetan itxura kapritxosoagoa dute eta eremu erdian tartekatzen dira.

81. galdera. *Armimaua* esaten da Eugin, baina oraindik ekialdeko aldaerak agertzen dira zeren *armamiloa* baldin bada ekialdeko hizkerena, oraindik ere honen antzeko bat, *arbinboa*, agertzen da. *Armanbilo* gisakoak Aezkoan eta Zaraitzun agertzen dira. Beraz, aldaerak pixkanaka hasten dira agertzen.

43. galdera. *Otoño*. *Larrazkena* esaten da Erron eta Esteribarren eta hau da Aezkoan eta Luzaiden erabiltzen den aldaera, ekialdekoa. Anuen hau desagertzen da eta, honen ordeaz, *otoño* nagusitzen da.

53. galdera. *Amanecer*. *Argiastea*, ekialdeko elea Erroibarren eta Esteribarren hedatzen da. Anuen, ordea, *argistian* eta *argitzean* dugu.

59. galdera. *Lino*. Kasu honetan, -g- bokal artekoa, *lique* agertzen da ekialdeko hizkeretan eta -g- gabekoak Anuen hasten dira hedatzen. Guk Anuen *linoa* dugu, eta Ultzaman *liyua* eta gisa hortakoak zabaltzen dira.

71. galderari dagokionez, *prado* hitzean Erron eta Esteribarren *saroya*, *pentzea*, eta *soloa* adierak biltzen dira, baina Anuera heltzen denean *pentze* hitza desagertzen da. *Pentze* forma ekialdean agertzen da Luzaiden, Orbaran eta Espartzan, nahiz beti beste lexema batzuekin txandaketan. Sakanan eta Larraunen *eutze* gisakoak daude, alegia, familia berekoak, baina ez *pentze*.

72. eta 73. galderei dagokienez, *sembrar* hitzean berrikuntza bat gertatzen da Esteribarren eta Erron *ereki* 'sembrar' eta ez da hedatzen ez ekialdera *erein* egiten dutelako ekialdeko ibarretan, ez eta Anue ibarrera ere, hemen *erein/ erain* erabiltzen baituzte. Honenbestez ikusten dugu, aldaera batzuk ez direla hortik pasatzen eta bertan sortutako berrikuntzak direla.

83. galdera. *Burtxintxa* aldaera, *b-* hasieran duena Aezkoan, Erroibarren eta Esteribarren agertzen da. Etxaideren liburuan *ardille* agertu arren, guk badakigu *burtxintxe* esaten dela. Beraz eremu honetako eskusiboa dela esan dezakegu, Anuen *urtxintxa* dugu, eta hortik Ultzama eta Atetz aldera, mendebaldera *katagorri* hedatzen da. Berriz ere Anuek trantsizioa erakusten du.EHHA-ko 187. mapa ikusten badugu, erraz da konturatzea banaketa berbera dela, eta hain zuzen ere Ultzamatik mendebaldera *kattagorri* hedatzen dela. Bestalde, *kata-burtxintxa* lemapean bildu dira Donamaria, Sunbilla eta Anizko aldaerak.

105. galdera. *Gerruntzia* aldaera nagusi da Erroibarren, Esteribarren, Aezkoan, Baztanen eta baita Arraitzen eta Atezko Arostegin. Anuen, berriz, *erraye* eta *saiets* formak hedatzen dira Ultzaman Imotz eta mendebaldeko eremuetan bezala.

108. galdera. *Pelo* lexemaren erantzunean Esteribarren eta Erron *biloa* dugu eta *illa* Anuen. *Bilo* ekialdeko forma da, Erronkarin, Zaraitzun eta Erroibarren hedatzen dena eta Esteribarreraino du hedadura. Anuetik mendebaldera, ordea, *illa* agertzen zaigu. Erantzun hau argi eta nabarmenki frogatzen du orain arte aipatutakoa.

111. galdera. *Dedo* hitzean, *eria* lexematik eratorritako formak (*eria*, *erie*, *edea*, *eddie*) dauzkagu Erroibarren eta Esteribarren. Aitzitik *beatza* eta *biatza* Anueko aldaerak dira.

143. galdera. *Cuchillo* lexeman *kanibeta* eta *kanabite* ditugu Erroibarren eta Esteribarren eta *nabala* Anuen, lehenbiziko aldaerak frantsesaren eragina islatzen dute, baina mailegu zaharra da, aspaldidanik sartu zelako.

145. galdera. *Caldero* lexema *bezkoa* da ekialde osoan eta *pozala* hasten da Anuen hedatzen, gero Ultzaman *pertza* eta aldaera horiek hasten dira agertzen.

148. galdera. *Tijeras*. Honetan ere *k-dun* aldaerak ekialdean hedatzen dira baita Erroibarren ere, Esteribarren *kurixak* eta *piruxek* txandaketa hasten da eta azkenik, Anuen *piruxek* dugu.

156. galdera. *Nudo*, *lazada*. hitzean badira /r/ anitza duten aldaerak. Horrela, *korropilloa* aldaera hedatzen da Luzaiden eta Orotz Betelun, Erroibarren ere bai, Esteribarren txandaketa dago, eta azkenik Anuen *koropilo* aldaera hedatzen da. Geroztik ez dugu inon aurkitzen, beraz eremu honetako eskusiboa da aldaera hori.

159. galderan *Sábana* dugu. Erroibarren eta Esteribarren *maindrea* aldaera sinkopaduna dugu, horretaz gain, *larrie* ere erabiltzen da. Eta bestaldetik, *mainderia* dugu Anuen, sinkoparen eraginaren ahultasuna erakutsiz.

163. galdera 'anverso de la mano' da. Erantzunetan *eskuazpia* hitza hasten da Anuetik mendebaldera hedatzen, alegia, Ultzaman, Imotz, Basaburuan..... Ordea, *pe*, atzizki gisa, nahiz hitz independente gisa, *-eskupea* eta *pekua*- Eugin eta Erroibarren dugu baita ekialdeko haranetan ere.

168. galdera. Ekialdeko ibarretan *sandue* dugu, Anueko Etulainen, ordea, *santue* hasten da hedatzen, eta *santue* eta *sandue* izanen ditugu Ultzaman.

165. galdera. Ikus dezagun mapa honetan *aingiru* hitzaren hedapena: bi ibar hauetan hedatzen da -Esteribarren eta Erroibarren- baita Baztanen eta ekialderago ere: Aezkoako Garaioan, Abaurregainan eta Zaraitzuko Espartzan. Bistan denez, Esteribarreraino hedatzen da, eta Anuera helduz gero, *aingeru* gisakoak nagusitzen dira, mendebalderago bezala.

171. galdera. *Perdón* hitzean *barkamendua* dugu Erroibarren eta Esteribarren. Aezkoan, Baztan eta Luzaiden bezala -erdatatik eratorritako *perdona*-rekin batera. Ordea, *-zioa* atzizkitik eratorritakoak Anuen, Ultzama, Atetzen eta mendebalderago hedatzen dira.

174. galdera. *Abuelo* hitzean *apitxi* eta *aputxi* gisako aldaerak ditugu Erroibarren eta Esteribarren, aldiz Anuen *aituxi* eta *aiteutxi* nagusitzen dira.

188. galdera. *Mujer* hitzean ekialde osotik *emazte* aldaerak nagusitzen dira, Erron *mazte* dugu, Esteribarren *mazteki* da nagusi nahiz *andrea* ere erabiltzen den, baina Anuen azkenik desagertu da aldaera hori eta *andre* nagusitzen da.

202. galdera. *Vago*. Kontua da badakigula Erroibarren *auferra* esaten dela, nahiz galdetegian *perezosoa* agertzen den. Esteribarren txandaketak daude, baina *auferra* ere erabiltzen da. Azkenik Anuen *alferra* dugu Ultzaman eta mendebalderagoko herrietan bezala. Kasu honetan ere ikusten dugu *auferra* aldaera Aezkoako Abaurrean eta Garaioan esaten dela eta Esteribarreraino heltzen da hedapen hau.

221. galderan *barrenekoa* dugu Erroibarren eta *barreneko*, *barnekoa* Esteribarren, Anuen ordea, *barneko* besterik ez. EHHAL-n galdera honi egindako banaketa geolektala ikusten badugu, -galdera 32190 zenbakia duena- frogatuko dugu banaketa ez dela garbia, baina erakusten du Esteribarren eta Erroibarren *barren* izatean, Goinafarreraren iparraldeko eragina. Nolanahi dela ere, kasu honetan argi dago *continuum* sistematikorik ez dagoela eta lexemak txertatzen direla bat bestearen eremuan.

260. galdera aurrekoen gisakoa dugu. Eta sail honetako dugu 'enviar' ere, *igorri* dugu Erroibarren, Zaraitzun bezala, Esteribarren *bieli* eta *igorri* eta azkenik, Anuen *bieli* nagusitzen da.

240. galdera. Bada lexema bat, *buluxi*, *u-u* bokal taldea duena, forma asimilatu hau ekialdeko ibarretan gertatzen da, Zaraitzun, Aezkoan eta Luzaiden. Anuen hasten dira *biluxik* forma nagusitzen nahiz beste batzuekin txandakatzen diren.

Bestalde, *descalzo* forma *urtuxi* da Erroibarren eta Esteribarren, Aezkoan, Zaraitzun eta Baztanen bezala. *Oñutsik* dugu Anuen, nahiz mendebalderago dagoen Ultzaman berriz ere *oñutsik* agertzen hasten den.

262. galdera. *Nadie* dugu aztergai oraingoan. Eta zenbaki honetan *Niok* (Erro) motako aldaerak agertzen zaizkigu Erroibarren eta Esteribarren txandaketak ere badituzte. Hauek dira ekialdeko formak, Luzaiden, Auritzen eta baita Baztango Amaiurren, Urdazubin eta Zugarramurdin ere.

292. galdera. *Para cada uno*. Hor ikusten da Erroibar eta Esteribar lerratzen direla Baztanekin eta baita Zugarramurdirekin ere, *bakarrendako* erabiliz, ez ekialdeko euskalkiekin, horietan *bakoitz* erabiltzen baita. Anuen bi aldaerak erabiltzen dira.

3. Erroibarko eta Esteribarko hizkerak ekialdearekin lotzen duten ezaugarriak.

Orografia oinarri harturik Nafarroako Erroibar eta Esteribar, bereziki iparreko herriak. oso hurbil daude BN-tik, mugakideak baitira. Giza harremak ere ugariak izan dira, eta jakina denez, artzantza, sal-erosketak eta beste hartu-emanen bidez, hizkerak poliki-poliki bata besteari eragiten irudikatzen joan dira. Era berean, euskalki honek behenafarrerarekin dituen kidetasunak ere handiak izan dira.

Dialektologiaren helburuetariko bat da hizkera batek beste hizkerekiko zein konbergentzia eta dibergentzia maila duen neurtzea eta hizkerak nola egituratzen eta erlazionatzen diren jakitea.

Hori helburu izanik, guk egindako ikerketa baten ondorioz, lan honetan baino galdeketa sakonagoa burutu dugu, eta horretan oinarrituz, esan dezakegu badela lexiko ugari iparraldearekin lotzen duena, hain zuzen ere behenafarreraz erabiltzen diren hitzekin. Hona item hauetako batzuk:

abarrikatu, *abata*, *afera*, *aixtur*, *alimaleko*, *alkea*, *alta* (= ordea), *anitz*, *aratxe*, *arnoa*, *atsalaskaria*, *aufer*, *bazterretxea*, *berant*, *buluxik*, *elea atra*, *elia* 'abere taldea', *erreindure*, *eskaratzea*, *esoala* 'hesi-ohola', *ezpartiña*, *fier* 'indartsu',

fite 'laster', *galdin* 'eskatu & galdetu', *gasna*, *iler*, *kabala*, *kafia*, *kukurruxte* 'kaildurra', *larrazken*, *lotsa* (=beldur), *muzikon*, *orga*, *oren*, *ortzadar*, *osagarri*, *propia*, *samurtu* (= haserretu), *sobera*, *ttipi*, *txar*, *urde*, *yauzi*, *yin*, *yinko*, *zango*, *zerrol*, *zilo*.

Hauetako hitz batzuk ez dira gaur entzuten, galbidean abiatu dira euskararen egoera makala dela eta, horrekin argi ikusten dugu ekialdeko ezaugarriak gibelerantz joan direla. Askoz gehiago badira ere, honatx 'elia' hitza, Azkuek biltzen du Esteribarren, baina, orain ez da erabiltzen.

Bestaldetik, badira hitz ugari frantsesetik edo biarnesetik eratorri direnak, Iparraldean hedatu direnak eta hegoaldean ere baneratu direnak. Hona batzuk: *arribetu*, *bisaia* (Zil), *fier* (indartsu & ausart) (< fier), *finitu*, *afera*, *defota* < fr. default, *fite*, *galdegin* 'eskatu & galdetu' (fr. demander 'eskatu'), *kadera* 'aulki' (biar. *cadière*), *kaskuin* ('burugogor'), *lerra* 'pinua', *montra* 'erlojua', *xarmanta*, *xerka* 'bila'. Bistan denez, *auffer* hitzaren *au-*, kaskoineratik datorrena, Iruñerriraino hedatu dela ematen du.

Dena den, ez dago gaur egungo frantsetik eratorritako inolako mailegurik, eten egin direla esan dezakegu. Hori dela eta ez dago *mera* 'alkatea', *lusagar*, *lanjer*, *promena*, *plafuna* 'sapaia', *yuye* 'epaile' bezalako adibiderik Zugarramurdin eta iparraldeko herrietan hedatu direnak.

Honek erakusten digu iparraldekoarekiko harremana gutxitu egin dela eta mailegu berririk ez dagoela, pixkanaka-pixkanaka isoglosak horizontalak izaten hasiak direlako, eta iparraldean frantsesa eta hegoaldean gaztelaniak gero eta eragin handiagoa izaten hasiak direla.

Nolanahi dela ere, ez dago herri guztietan kopuru bera, horrela Zilbetin eta Eugin -Erroibar nahiz Esteribarko iparreko herrietan- *omeleta* 'tortilla', *otoa* 'autoa', *montra* 'erlojua' eta antzekoak entzun ditugu, herri hauek muga-mugan daudelako, eta hiztunen arabera ere aldeak daudelako.

4. Anueko hitzak Ultzamakoekin bat datozenak eta ez Esteribar eta Errorekin

Zerrenda honetan, galdetegi beretik ateratako beste ondorio batzuk ekarri ditugu. Frogatu nahi izan dugu Anueko lexikoak noraino duen eragina Ultzamakoarekin, hain zuzen ere mugakidea den ibarrarekin, eta honekin argiago ikusiko dugu Bonapartek ezarritako muga arrazoizkoa den ala ez (ik. honetaz Ibarra 1995). Hurrengo zerrenda honetan Ultzama eta Anue bat datoz, baina

Esteribar eta Errotik urrutiratzen dira. Honek ez du esan nahi aipatu hitzak eskusibok direnik, jakina baita eremu handiagoan ere hedatzen direla:

burnie, tximiste, egurie, kazkarabarra, jainkoen paxa, launbeta, mayetza, iyaute/iyotiak, negurritu/ nigurtu, ausiñe, armimaue, errayek, arraultzia, auspoa/ auskua, piruxek, agozbaye 'criba, tamiz', isillue, aundiz, eskuazpia, aitutxi, nesako, andre (ez emazteki), edeki, itzerri (< iratzarri), biluxi (ez buluxi), bieli, aingeru, alferra.

Oso tara, 28 hitz dira, galdetegi orokorra 300 hitz osatzen dutelarik, honenbestez %8 alditan Anue bat dator Ultzamarekin Esteribar eta Errotik aldenuz. Nolanahi dela ere, argi ikusten da graduzkoa dela hedapen hau eta pixkanaka suertatzen dela.

Jakina, ez zaigu atzendu behar *continuum* horretan, batzuetan aldaketa hurrengo ibarrean gertatzen dela. Nola bakarrik azpimarratu dugun desberdintasuna duten aldaerak, hemen ez da ikusten amankomuneko ezaugarririk. Esaterako, hiru ibarrotan *kune* esaten da, eta behin Basaburura helduz gero, *seaska* erabiltzen hasiko da. Edo *txilkoa*, *xilkoa* esaten dela hiru ibarrotan eta *txilborra* Etxalekun esaten hasten dela. Era berean hiru ibarrotan *ertzea* dugu 'intestino' esateko, alegia, -rtz- aldaerak nagusitzen dira. Edo *barea* 'limaco' esaten hasten da Ultzaman, ez Anuen.

Gauza bera gertatzen da *neskato* -ekialdeko aldaerarekin- *neskame* erabiltzen hasten da Etxalekun edo *olvidar* 'atzendu' ekialde guztian eta Etxalekura heldu orduko *aztu* dokumentatzen da.

5. Erroibar eta Esteribar Baztanekin konpartitzen dutenak

Honainokoa ikusi ondoren, esan dezakegu Esteribar eta Erro lotuxeagoak agertzen direla, eta eremu geolektalarekin bat datozeela. Zenbaitetan haran hauek lotura gehixeago erakusten dute Baztanekin, esaterako, honako hitz guztiak konpartitzen dute Baztanekin eta ez Anuerekin: *aingiru, gerruntzia, urtuxi, nior, bakarrendako, barkamendua*. Jakina, Baztan-Esteribar-Eroibar ibarrek konpartitzen duten hitz-zerrenda askoz ere gehiago luza liteke, baina guk bereziki galdetegi honetan jartzen duenari mugatu nahi izan diogu.

Talde honetatik berezixeago agertzen da Anue, eten lexiko eta fonetiko batzuk badirela esan daitekeelarik.

Honek ez du esan nahi isoglosak irmoak direnik eta beti leku beretik pasatzen direnik, zenbait lexematan Anue batera dator Esteribarrekin. Esaterako, hor dugu 48 zenbakiarekin *Nochebuena. Gabona* Eroibarren, baina Esteribarren eta Anuen *subilero* gisako aldaerak daude.

48. Nochebuena: *gabona* (Erro) / *subilero* (Eu), *eguarriko arratsa* (Ester) / *sunbillero, eguarriko bespera* (Anue).

Baina ez dezagun ahantz Anuek ere badituela ekialdeko eremuarekin lotura anitz, honatx Anueko ele hauetan nola ikusten den ekialderako isuria: *aitzin, ameka, armimaua, erran, ertze, iyen, ortzegun, ortzirala, nesako, gartzarue*.

6. Ondorioak

Adibide hauen bidez adierazi nahi dugu lexiko alorrean badagoela halako jauzi edota etenaldi bat Erro eta Esteribar alde batetik lerratzen duena, eta bestetik Anue. Dударik gabe, amankomuneko ezaugarriak handiak dira, nolabaiteko *continuum* bat osatzen dutelarik, baina, etenaldi bat badagoela ere esan daiteke.

Horrela, aztertutako lexemen ondorioz, argi ikusten da Anueko euskarak Nafarroako ekialdeko ezaugarri batzuk ez dituela erakusten. Horrela, Errobarren eta Esteribarren erabiltzen diren hitz hauek ez dira Anuen agertzen:

bakarra, nion, igorri, buluxi, barren, yarduki, urtuxi, buluxi, mazte, kurixa, kanibeta, eria, biloa, gerruntzea, saroi, sagoi, larrazkena, garila, txitxorra, pea, sandue, (21 hitz dira osotara, galdetegi honetatik) Portzentaietan mintzatuz, eta galdetegi hau kontuan hartuz, %7 dira hitz hauek.

Hauen ordeaz erdialderagokoak nagusitzen dira, eta honek erakusten du Anue Ultzamari begira dagoela, eta Anueko lexikoa eta Esteribarkoa, berriz, erdialderagoko isuri nabarmenagoa erakusten dutela.

Liburuan 300 galderetatik guk 24 item iruzkindu ditugu. Denetan ikusten da gehiago edo gutxiago, jauzi bat badagoela. Arestian genioenez, Anueko lexikoa %8-tan bat dator Ultzamakoarekin eta aldentzen da Erroibar eta Esteribartik. Baina, dudarik gabe, honek ez digu estali behar bestaldetik dagoen batasuna eta osotasuna. Hain zuzen ere, amankomunean dituzten hitz horiek ez dugu iruzkindu.

Lan honek erakusten digu aldakuntza dialektalak espazioan zehar hedatzen direla emeki-emeki, nolabaiteko *continuum* bat bezala irudikatuz. Adierazi nahi dugu alderaketa hau graduzkoa dela, eta diferentziak gutxinaka hedatzen direla, dena *continuum* bat dela adieraziz.

Eta *continuum* horretan badira atzera-aurrera pausuak ere. Horrela, Anue eta Erroibar –ertzeetan daudenak- batera doaz zenbaitetan, esan nahi dugu kapritxozko irudia erakusten dutela, eta ez datozela bat, eta zein bere bidetik doala edota elkar gurutzatzen direla. Hona adibide bat: *izotzilla* Aintzian eta *ootzille*

Anuen, Esteribar aparte dago, *ilbeltza* duelarik. Era berean, 'vergüenza' hitzean *alke* esaten da hiru ibarrotan Anuen, Esteribarren eta Erron eta, *lotsa*, ordea, Ultzaman hasiko da hedatzen.

Bukatzeko, Chambers & Trudgill-en aipamena ekarriko dugu hona *continuum* zer den adierazten duena. Argi ikusten da honen bidez, banaketa dialektologikoa batzuetan arbitrarioa izan daitekeela eta neke izaten dela dialektoak bereiztea:

La noción de continuum dialectal es quizá difícil de entender porque, como ya hemos comentado, estamos acostumbrados a pensar en las variedades lingüísticas como entidades discretas, pero el hecho de que tales continúas existan acentúa la legitimidad de usar de modo ad hoc etiquetas para las variedades. Puesto que tenemos continúas dialectales, el modo en que dividimos y clasificamos fragmentos particulares de un continuum puede ser a menudo, desde un punto de vista puramente lingüístico, arbitrario. (Chambers & Trudgill 1994: 24)

Etikulu xume honekin erdialdeko eremu hau, eragin lektal anitz jasotzen dituen, argitzen saiatu nahi izan dugu honetarako lexiko arloko frogak batzuk ekarri.

BIBLIOGRAFIA

AURREKOETXEA, G.; 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", in *Uztaro* 5, Udako Euskal Unibertsitatea, 59-109.

CAMINO I, 1999, "Goñerriko hizkera I", *ASJU* XXXIII-1, 1999., 5-78.

_____, 2000, "Goñerriko hizkera II", *ASJU* XXXIV-1, 2000, 137-196.

ETXAIDE A.M.; 1989, *El euskera en Navarra. encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

CHAMBERS J. K., TRUDGILL P. 1994, *La dialectología*, Visor Libros.

IBARRA O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkieko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

_____, 1996

, "Erroibarko lexikoaren gainean", *Euskera* 41. liburukia. 1996, 3, 929-975.

_____, 2000c, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako unibertsitate Publikoa.

VIDEGAIN X., "Mitxelenaz eta dialektologiaz", *Egan* 40,3/6, 141-153.

ZUAZO, K.; 1998, "Nafarroako euskal hizkerak", in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 1-22

RESUMEN

Analizamos en este artículo la distribución del léxico en tres valles colindantes del Norte de Navarra, que se extienden de Este a Oeste: Valles de Erro, de Esteribar y de Anue. Tomamos como punto de partida las encuestas lexicales publicadas por Etxaide en 1999, y comprobamos qué grado de similitud y de diferencia existe entre el léxico de estos valles, analizando las influencias que han tenido de otras áreas dialectales. Finalmente, concluimos desmostrando que a pesar de que nos encontramos ante un *continuum* dialectal, existe un “salto” gradual, que aleja el valle de Anue del de los valles de Erro y Esteribar. Aproximadamente un %7 del léxico de Anue difiere del de los otros valles, asimismo demostramos que un porcentaje similar une Anue con el valle de Ulzama situado más al Oeste.

Palabras clave: dialectología vasca, alto-navarro, léxico, geografía lingüística